

GIPUZKOAR DULTZAINEROEI ZOR ZITZAIENA

Juan Mari Beltranek osatu duen Dultzaina Gipuzkoan 1950. hamarkada arte *liburu sendoarekin abiatu da Herri Musika Bilduma, Txoko honen lehen argitalpena.*

Joan den maiatzaren 7an aurkeztu zen Donostiako Koldo Mitxelena zentruan **Juan Mari Beltranen** azkeneko lana, **Dultzaina Gipuzkoan 1950. hamarkada arte** izenburupean. Azkeneko lana esan dugu baina agian aurrenekotakoa dela ere esan behar genuke, hogeitamar urtetik gora dira eta, etxez etxe, sukaldez sukalde, lurralde hau zeharkatzen hasi zela dultzainaren inguruko datuak jasotzearen. Eraitza bikaina izan da, eta berak dioenez erabatekoa ez bada ere (beti sortuko da ezagutzen ez genuen daturik han hemenka), ezinbesteko kontsulta liburu bihurtzera deitua dago dultzainaren inguruan lan egiten dugunontzat, tresna honek Gipuzkoan izan duen presentzia ukazina bihurtu baitu, eta askok pentsa genezakeena baino zabalagoa izan da gainera.


Liburu hau aukera paregabea suertatu zaigu bestalde, Herri Musikaren Txokoan garatu asmo genuen beste proiektu bati lehen bultzada emateko. Erviti musika etxeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu dute lehen argitalpen

hau. Eta lehena diogu, gure asmotan behintzat ez delako azkenekoa izango. Zabalagoa da egitasmoa: batetik herri musikaren inguruan alderdi teoriko eta deskribatzaileetan sakontzeko premia nabarmena dagoela erakutsi digu liburu honek (ahozkotasunean bizi zen informazio guzti hori galtzear, itxuraldatzekotan zen, eta bildu izan ez balitz ez genuen soinu-tresna honi buruzko ikuspegi egokirik izan-

go), eta bestetik, bildu dena nahiz biltzeko dagoena, gure herri musikari buruz dakiguna eta jakiteko gaudena ere, zabaltzeko beharra dago. Ikerketa eta dibulgazioari irtenbidea emateko aukera ia derrigorrezkoa zitzaigun bada, lan hauek publikoaren eskutan jartzea, argitaratzea alegia.

Herri Musika Bilduma honekin inauguratu dugu idatzien argitalpenerako bidea. Badira beste zenbait proiektu bilduma honi jarraipena emateko (HM Txokoan egin ziren bi jardunaldietako mintegien emaitzekin eta, agian, albokaren inguruan egindako beste ikerlan batekin osatu litezke hurrengo zenbakiak), eta idatziari ez ezik, audio materialei ere bidea zabalduko dien beste bilduma proiekturik ere badugu eskuartean; laister mamituko da, besteak beste, *Dultzaina Gipuzkoan* liburuan aipatzen diren dultzainero zaharrei egindako grabazioak biltzen dituen diskoa tartean izango duen CD bilduma.

Baina asmoak asmo dira, eta oraingoz eskuekin heltzeko daukaguna lehen liburu hau da. Bi eskuekin heldu beharra dago gainera, 441 orrialdeko lana baita, hiru



DULTZAINA GIPUZKOAN 1950. hamarkada arte

La dulzaina en Gipuzkoa. Hasta la década de 1950
The dulzaina of Gipuzkoa. Until the 1950's



Juan Mari Beltran Argiñena

Herri Musika Bilduma, 1



hizkuntzatan (euskara, gaztelera eta ingelesa) egindako hitzeko azalpenez gainera 176 partitura eta dozenaka argazki dituena. Lau ataletan banatu du Juan Mari Beltranek bere lana. Lehenengo atalean Gipuzkoako dultzaina eta dultzaineroei buruzko ikuspegi zabal bat ematen digu. **Soinutresnaren jatorriari** buruzko teoria bat azaltzen digu, arabiar jatorria leporatzen dioten teorizatzaileen aurrean, bertan sortua ez bada, bederen bertan bilakatu eta garatu den tresna delako ustearen funtsak ezartzeko asmotan. Jarraian, tresna eta joleei buruz lurraldean jaso diren **aipamen historiko zehatzak** kronologikoki aipatuko dizkigu, hasi 1668. urtetik (Arantzazuko organuaren inbentarioa egin zenean, Zeraingo seme batek egindako organu honek "dulzaina" errejistroa duela ageri da urte horretan) eta 1952.ean Aita Donostiak Azkoitiako Monttetarren berri ematen digun arte. Jarraian etorriko dira bereziki XIX. mende bukaera eta XX. mendearen lehen erdian gipuzkoar dultzaineroek bizi izan duten ingurua, egin duten **musika**, ikasteko erabili dituzten metodoak, osatu izan dituzten

talde instrumentalak, eta abarren deskribapena. Bigarren atalean, bailaraz bailara eta herriz herri sailkatuak, **dultzaineroen zerrenda** osatu digu Juan Marik, bakoitzari buruzko aipamen labur batzuk eginaz. Denera **140 izen inguru**, eta berak aipatzen duen eran, asko falta dira gainera (hasteko, XX. mendearen bigarren erdian sortu izan diren beste hainbat eta hainbat dultzaineroren berri ez da hemen jasotzen). Hirugarren atalean berriz, dultzaineroak ez baino **dultzaina egileak** zerrendatu ditu, hauekin batera egile ezagunik ez badute ere, lurraldean aurkitu diren zenbait tresna zaharren deskribapena ere ekarriz. Eta azkenik, laugarren atalean, **errepertorioa** eskeintzen zaigu. Oso iturri ezberdinetatik jaso, badira zuzenean egindako grabaziotan jasotako doinuak, Montte baserrian egindakoak edo Hernaniko plazan Agirretxetarrei egindakoak adibidez; beste zenbait lanetan argitaratu izan direnak ere bai (idatziz, Iruñako Gaiteroek Agirretxetarren doinurik eman izan baitute, edota audio/bideo

formatotan, Gipuzkoa pelikulan Monttetarrek jotakoa bezala), baita dultzaineroen ondorengoek gogoan izan dituzten doinuak ere, hauei kantuan jasotakoak (Antonio Peña oriotarraren errepertorioa esate baterako), eta 1913.ean Rudolf Trebistch austriarrak egindako grabaziotakoak bezalako perlak tartean. Historia luzea eta jende asko lanean, Gipuzkoan dultzaina zerbait baino gehiago izan dela eta badela erakusteko. Zor handi samarra genuen bada, halako altxorra gure eskutan jarri duten gizon-emakume guzti horiei, eta zorra erabat kitatu ez bada ere, lehen ordaina izan dadila Juan Mari Beltranek eskeintzen dien hau. Ea aurki baino lehen ematerik badugun bigarrena, jaso diren grabazioak entzungai jarriz.

udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 12 euro.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udako kontzertua

2004ko ekainaren 26an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Hiruhilabetero, dagokion urtaroarekin bat eginaz kontzertua antolatzeko ohitura dugunez, iritsi da aurtengo bigarrenaren garaia: udakoa. Oraingo honetan, aukera ezin hobe iruditu zaigu aurreko artikuluan aipatzen genuen Dultzaina Gipuzkoan liburua argitaratu izana, herrialde honetako dultzaineroak biltzeko. Hori dela eta, orain artean kontzertu hauetan erabili dugun formatoa zabaldu egin dugu apur bat. Gure ohitura izan da, hain zuzen ere, kontzertu bakoitzeko bi talde ekartzea, bata Euskal Herriko musika eskeintzen duena eta bestea atzerrikoa. Oraingoan



ordea hiru izango ditugu: "Turlach" irlandarrak kanpotik (eta etxetik aldi berean, Alan Griffin HM Txokoak lagun handia du eta aspaldidanik), eta bertatik berriz bi dultzainero familia: Monttetarrak eta Agirretxetarrak.

Aurreko urteetako udako kontzertuetan entzun ahal izan genituen Nafarroako dultzaineroak (Lizarrako Gaiteroak) eta Bizkaikoak (Javi Santamaria eta Agustin Alonso), lurralde horietako estiloen erakusgarri. Gipuzkoarrok dakarkigutena, J.M. Beltranen hitzetan, ez da ez bat ez bestea, tartekoa baizik, bien ezaugarri ezberdinak biltzen dituena, eta horretxek ematen dio berezkotasuna Gipuzkoako Dultzainari. Azkoitiko Monttetarrak eta Lezo-lrungo Agirretxetarrak, Gipuzkoako Dultzainero tradizionalen artean, bertako estiloa bizi-bizirik mantentzen duten bi familia nagusiak dira. Beste askok bezala, beren gurasoengandik jaso dute gipuzkoar dultzainaren mundu berezia, baina hori bakarrik ez, kalean mantentzen dute guztion gozagarri. Aukera paregabea da bada, aipatu liburuan irakur ditzakegunak belarritik eta zuzenean jasotzeko. Gonbidatuak zaudete denak.

MONTTETARRAK (Dultzaineroak)

Manuel, Marisol eta Elena Sudupe

Manuel Sudupe Epelde, Jose Sudupe dultzainero ospetsuaren semea, Azkoitiako "Montte" baserrian jaio zen 1940. urtean. Aita eta osaba Jose Marirekin ikasi zuen

dultzaina eta danborra jotzen, eta hogeitau urte zituela Martirietako "Santaeskian" aritzen zen jada baserri dultzaina jotzen. Aita eta osabarekin danborra

jotzen ibili zen (osaba Xantik ezin zuenean edo hura faltatu zenetik), eta aita zahartu zenean, dultzaina hartu zuen osabarekin duoa osatzeko. Gerora, aita-osabak ere faltatu zirenean, Inazio Soraluze "Korta"-rekin aritu zen urte askoan, hau 1997. urtean hil zen arte.

Bi dultzaina eta danborraz jarduteaz gain, bere aurrekoek egiten zuten eran, trikiti eta panderoarekin bat eginda maiz jo izan du dultzaina Manuelek, eta honela ezagutu izan dugu urte askoan irailean Ernio azpiko Zelatungo erromerietan.

Jo bakarrik ez, egin ere egiten ditu dultzainak, metalezkoak nahiz zurezkoak, "Montte" baserriko tailer zaharrean, bere aurrekoek egin izan dituzten bezala.

Marisol eta Elena Sudupe gazteek "Montte" baserriko belau-naldi berria osatzen dute. Biek ere osaba Manuelekin ikasi zuten dultzaina eta danborra jotzen.



AGIRRETXETARRAK (Dultzaineroak)

Konstantino, Eugenio eta Edurne Agirretxe

Konstantino Agirretxe Ezama Irungo Bentaseko auzoan jaio zen 1926. urtean, Loiola baserrian. Errezilgo Alejandro Agirretxe dultzaineroaren semea, Lezon bizi da gaur. Aitarekin ikasi zuen dultzaina eta danborra jotzen, eta 12 urte zituela jada kalean zebilen aita eta osaba Jose Mari danborrarekin laguntzen. Dultzaina berriz 18 urterekin jo omen zuen lehenengoz jende aurrean, Errezilgo Santa Agedako eskean. Gerora, 1977.ean aita hil zela eta, anaia Eugeniorekin bikotea osatu eta jotzen jarraitu du gaur egun arte. 2000. urtean Lezeoko herriak ongi merezitako omenaldia eskeini zion hainbeste urtetako lana dela eta.

Eugenio Agirretxe Ezama ere Irunen jaioa da, 1934.ean. Konstantinoren anaia, aitarekin ikasi zuen honek ere danborra eta dultzaina jotzen, eta harekin txandaka ibili zen 12 urte zituenetik danborra jotzen aita-osabekin. Gaur Irunen bizi da, eta anaiarekin dultzaina jotzen jarraitzen du "Dultzaineros Uranzu" taldea osatuz.

Edurne Agirretxe Aginagalde, Eugenioren alaba, Irunen jaio zen 1974.ean. Hiruretan gazteena izan da jotzen hasteko ere, 10 urte zituela danborra astintzen baitzuen Eugenio eta Konstantino aita-osabekin. Aitarekin ikasi zuen izan ere lanbidea, eta "Dultzaineros Uranzu" taldeko ezinbesteko hirugarren jolea da orain ere.

"Dultzaineros Uranzu" taldea 1977. urtean sortu zuten Eugenio eta Konstantinok. Bien aita Alejandro gaisorik zegoela, honela esan omen zien semeei: "Nik ezin dut eta, hemendik aurrera, zuek jo nere partez". Hori izan zen taldearen abiaburua, urte hartan bertan Biasterin ospatu zen "Día del Gaitero" zelakoan egindako saioa. Geroztik Euskal Herriko bazter guztietan entzun ditzakegu, aita-osabei ikasitako errepertorio hura zabalduz (bai lurraldean, bai kantitatean ere): Irun, Hondarribia, Hendaia, Hazpame, Donibane Garazi, Ezpeleta, Baiona,... eta noski, hutsegina gabe, urtero Biasteriko "Día del Gaitero" horretan jotzen jarraitzen dute.

BISITARI KOPURUA

Martxoa: bisitari kopurua: 529

Antolatutako taldeak: 25

Apirila: bisitari kopurua: 338

Antolatutako taldeak: 14

Maiatza: bisitari kopurua: 432

Antolatutako taldeak: 17

Bisitari kopurua ekaina arte: **6.194**

TURLACH (IRLANDA)

Donal Thompson, Alan Griffin eta Juanjo Otxotorena

Turlach, Donal Thompson (ahotsa eta gitarra), Alan Griffin (flautak eta gaita) eta Juanjo Otxotorena (bouzouki eta mandolina) osatua, duela urtebete sortu zen Irlandako herri musika jotzeko asmoz.

Taldeakideen arteko harremana, musikaren alorrean, aspaldikoa da. Donal eta Alan elkarrekin dabilta The Porter Sharks talde irlandarrean, eta Juanjorekin berriz Alboka euskal taldean topa dezakegu Alan bera.

Turlach taldeak kantu eta soinu-tresnatarako doinu herrikoiak eskeintzen ditu, baita estilo zaharrean egindako doinu berriak ere. Eskozia eta Ingalaterrako kantu herrikoi batzuk ere tartekatzen dituzte beraien emanaldietan.

Egitaraua:

1. Reel-ak: Speed the Plough / The Old Bush / The Floggin' Reel
2. Abestia: What Put the Blood
3. Jiga: The Humours of Ballyloughlin
4. Hornpipe-a (gaita doinua): The C Whistle Hornpipes
5. Abestia: Tipping It Up to Nancy
6. Polkak: The Rattlin' Bog / The Tralee Polkas / The Four Poster Bed
7. Aire eta Reel-ak: Cape Clear / The Road to Monalea / Gan Ain / The Stone Wall
8. Abestia: I Am Weary of Lying Alone
9. Carolan piece: Lord Inchiquin
10. Martxa eta Slip-jiga: The King of Laoise / Light and Airy
11. Abestia: Let the Cold Winds Blow
12. Slip-Jiga: Eoinín na nÉan / The White-haired Boy
13. Reel-ak: Castlekelly / The West Clare Reel



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

